

2020 urterako ordenantza fiskalen inguruan EH Bilduren proposamenak udal gobernuak onartu dituenak:

- Ura

Kontsortzioak altako uran egiten duen igoerak ez du justifikatzen zerbitzu osoarentzat igoera bera. Altako ura kosteen atal bat da, ez koste osoa eta bat igotzeak ez du esan nahi zerbitzu osoaren kostea proportzio berdinean igoko dela.

\* aldatu egin da zerbitzu osoaren kostea proportzio berdinean igotzeko. Gainera, ura ezin da kobratu udalari kostatzen zaiona baino [gehiago](#). Defizitariora da egun zerbitzua eta igoerarekin ere defizitariora izaten jarraituko du.

- Icio

Ondare arkeologikoa babestearen alde gaude baina hobari horrek zehaztaperen gehiago behar ditu: zein obra mota, hobaritzen diren obren kokapena eta obra batetik zenbat hobaritzen den. Hobeto idazten bada, interpretatu beharrean aplikatu egiten delako.

\* hobeto idatzi da [Arrasate Zientzia Elkarteak](#) egindako proposamena.

- Familia ugariak

Ibilgailuei dagokienez, edozein kasutan, hobaria izateko balio konkretu baten azpikoak izan beharko lirateke.

\* eskaria haintzat hartuta limitazioa jarri da, potentzia fiskalean hain zuzen ere eta familiak duen diru sarrerak kontutan izango dira.